

Vall de Cardós eta Vall Ferrera



NGURU malkartsu eta bakartiak ezagutu, haran estuak zeharkatu, aintziretako ur izoztuak sentitu, glaziar jatorrizko zirkuak inguratu, mendien silueta zeruan marraztu, errekaen murmurioa entzun, baso trinkoetan murgildu, haitzaren itzal luzea bilatu, gau izartsuari so egin, iraganarekin amestu, mendi-gailurretara igo, haize leuna ferekatu, mugurdien zaporea dastatu... hamaika sentsazio ezberdinez gozatzeko inguru paregabeak!

ibilbidea

1. ETAPA: Cerbi - Refugi de la Pleta del Prat

Luzera: 11 km
Desnibela: 1429 m ↑ 1129 m ↓
Denbora: 7 ordu

Gaua Esterrí d'Aneun dagoen Pirinec aterpean igaro dugu eta goizean goiz furgonetan Cerbi herriraino igo gaituzte.

Motxila astunak bizkarreratu eta bost egunetako zeharkaldia egiteko behar diren gogo eta kemenak ditugulakoan hasiera eman diogu abentura txiki honi. Pista zabala jarraituz bost kilometro bete ditugu *Planell de Sartarira* heldu aurretik. Hona iristean amaitu dira berriketak, aldapa pikoa sigi-sagan igotzen hasi garenerako kopetatik lehen izerdi tantak irristatzen hasi dira. Hama-bost lagun ilaran, denak isil isilik. *Estany de la Golara* heltzean lehen atsedena hartu dugu, glukosa, fruitu lehor batzuk eta trago bat ur. Estanya inguratu eta *Tres Estany*s aintziren arrora heltzeko asmoz sakanetik gora egin dugu.

Artzain batekin egin dugu topo eta harekin hizketalditxo bat izan ostean lepora igotzen hasi gara. Belarra desagertu eta harriz betetako zidor deserosoari aurre egin diogu. Taldea sakabanatzen hasi da, lehen eguna da eta oraindik indarrak ez ditugu soberan. Gehienak motxilak utzi eta *Pic de Ventolaura* igo dira, ondoren berriro elkartu eta bertan bazkaltzea erabaki dugu. Ingu-ratzen gaituzten mendiak identifikatzen saiatu gara: urruti *Aneto*, *Maladeta*, *Posets* eta *Perdigueroko* gailur ezagunak, *Aigüestortes* eta *Sant Maurici* parkekoak gertuago eta parez pare *Mot-Roig*, *Sotllo*, *Pica d'Estats*, *Certascan*... ikuspegi paregabea!

Gustura gaude baina oraindik aterpera jaitsi behar dugu eta martxan jarri gara. Hasieran nabarmena den bidezidorra berehala ikusgaitz bihurtu da eta cahirrek erakutsi diguten bidea jarraituz *Coma del Forn* ordeka belartsu eta zabalera iritsi gara. Gure belaunek eskertu ez duten azken malda luze eta pikoa jaitsi ondoren *Pleta del Prat* iraupeneko eski-estaziora heldu gara. Aterpearen sarreran laga ditugu motxilak eta garagardoa limonadarekin nahastuz (lejia) gure egarria ase dugu. Afal aurretiko dutxa beroak lehen etapako nekeak arintzen lagundu digu. Afari oparoa eta ohera.



2. ETAPA: Refugi de la Pleta del Prat - Refugi de Certascan

Luzera: 11,5 km
Desnibela: 1440 m ↑ 900 m ↓
Denbora: 7 ordu

Goizean goiz iratzarri eta nahikoa lan izan dugu nagiak astintzeko. Ondo gosaldut, botak jarri aurretik behatzak

esparatrapuz babestu eta luzaketa batzuk egin ostean martxan jarri gara. Taldea oso animoso dago eta maldan beheran *Quancara*, *Bordes dels Portelsen* ondora jaitsi eta *Tavascan* erreka gaindituz *Bordes de Noarre* aldera igotzen hasi gara. Garai batean tximiniarik ez zuten borda hauek abeltzainek erabiltzen zituzten, egun, berriz, hirietako zurrunbilotik ihesi doan jendeak horietako batzuk birgaitu eta udaldia bertan ematen dute. Ez da leku txarra, alajaina!

Bidea, *Noarre* errekaen ondotik basoan murgiltzen da. Harana estutuz doa eta dagoen desmaila gainditzeko aldapa luze eta pikoa sigi-sagan igotzen hasi gara jarraitu beharreko bidea aukeratzeko lagundu diguten seinale gorriak jarraituz. *Flamisela* erreka gurutzatu eta *Pleta Vellara* iristean errekaen ondoan dauden pinu batzuen itzala bilatu dugu. Eguzkiak gogor jotzen baitu.

Freskatu, elikatu, atsedena hartu eta aire! *Estany Blanc de Guerrossera* igo nahi dugu baina bide okerra hartu eta *Serra de les Canals* osatzen duten mendi ikusgarrien magalean hedatzen den haranetik gora jo dugu. *Certascaneko* lepora heldu eta motxilak bertan utzi ostean taldekide gehienak *Tuc de Certascan* aldera abiatu dira. Harri soltez betetako lehen aldatsak gainditu eta gandorra jarraituz gailurra. Ikuspegi bikaina!

Lepoan elkartu gara berriro eta aurreko egunean lez, atsedean luzeana bertan egin dugu. Berehala ikusi dugu *Estany de Certascaneko* aintzira. Pirinioetako berezko aintzirarik zabalena (58 hektarea) eta, aldi berean, sakonenetakoa (90 metro). Sargori da. Trasteak jaso eta sakanetik beherantz egin dugu. Estanyaren ondora heltzean ezin izan diogu tentazioari eutsi eta gutako batzuk



ur hotzetan murgildu gara. Zelako algarak! Ez dugu luze iraun, eguneko izerdia eta hautsa kentzeko lain. Gaur ez dugu dutxa hartu beharrik izango. Aterpera heldu eta "leji"ri tragoxka batzuk eman ondoren, arropa zikinak ikuzi eta kanpoko sokan eskegi ditugu.

Afaritan egunean zehar ikusitakoak komentatu ditugu eta hurrengo egunean egin behar dugun etaparen xehetasunak aipatu eta ohera. Lorena, Aiora, Hodei, Mikel eta Iñigok ez dute aukera galdu nahi eta manta bana hartuz atarian etzanda izarrei so geratu dira.

■ 3. ETAPA: Refugi de Certascan - Refugi de Vall Ferrera

Luzera: 15 km
Desnibela: 1290 m ↑ 1590 m ↓
Denbora: 8 ordu

Gaurko etapa luzeena da eta goiz altxatu gara. Ez dugu aitzakiarik, eguraldi bikaina izango dugu. Gosaldu ostean ohiko prestaketak burutu ditugu eta berehala maldan behera abiatu gara. Pista gurutzatu, basoan sartzen den xenda (seinale gorriak) hartu eta *Pla de Boaviko* ordekkara iritsi gara. Orain gutxi arte inguru eder hauek gizakien gehiegizko presentzia jasaten zuten, *Tavascaneko* pista bertaraino heltzen baita. Ahalegin berezirik egin gabe oso erraza suertatzen zitzaion edonori haraino iristea bide bazter guztiak automobil, karabana eta kanpindendez beterik, desiratuko paradisua infernua bihurtuz! Zorionez egun pasoa eta kanpatzea galarazita daude. Ez dugu inor aurkitu. Urketz betetako inguru hauek atzean utzi eta Broateko haranetik datorren erreka zeharkatzeko dagoen zubi estuan oreka-ariketak egin behar izan ditugu. Baso trinkoan sartu eta landutako bidea jarraituz, *Vall de Cardós* eta *Vall Ferrera* lotzeko erabiltzen zuten *Coll de Sellente* aldera igotzen hasi gara.

Mugurdiak janez errekararen paraleloan erraz irabazi dugu altuera eta *Pla de Sant Pauko* ordekkara iristean haitz handi baten itzala bilatu dugu. Hamaiketako egiteko ordua. Geldialditxo eta gero *Collada de Becerora*

igo gara, haize leunak *Coll de Sellentera* falta dena betetzen lagundu digularik. Gaur ez dugu gailurrik egingo, oraindik etapa amaitzeko indarrak gorde behar dira eta. *Vall Ferreran* lehen urratsak eman eta berehala *Estany de Babortera* jaitsi gara. Eguzkiak gogor jotzen du eta izerdi patsetan gaude. Aintzirako ur izoztuetan murgiltze laburra, baina nahikoa. Bazkaritxo egin eta arroka bazterrean itzala bilatuz atsedean luzea.

Kostata baina martxan jarri gara berriz. Aintzira inguratu eta *Ferrerako* haraneraino jaisten den aldapa piko eta amaiezinari ekin diogu. Luzeegia suertatu zaigu eta aterpera heltzean "ohiko freskagarriak" gure nekea arindu du. Dutzatu eta gero hurrengo egunerako planak egin ditugu. Afari oparoa eta ohera. Gelako leihotik *Serra del Monteixoko* mendiek zeru izartsuan marrazten duten siluetari begira geratu natzaio lokartu arte. Lo.

■ *Trabesiaren abiapuntua Cerbi herrian*





4. ETAPA: Refugi de Vall Ferrera - Pica d'Estats

Luzera: 12 km
Desnibela: 1500 m ↑ ↓
Denbora: 8 ordu

Aurreko egunetan mendiaren bakardadeaz goatzeko izan dugun aukera amaitu da, *Catalunyako* gailurrik altuena den

Pica d'Estats igotzeko asmoz udan "mendizale" ugari hurbiltzen baita. Hala ere, jende uholdea saihesteko garaiz gosaldu eta goizeko seitan maldan gora jarri gara.

Hotz da, hamaika gradu. Ilaran, Maitek erritmoa jarri eta ondo markatutako bidezidorra jarraituz ipar-ekialderantz igotzen hasi gara, *Serrat d'Arete* aldera. Berehala mendebalderantz jo dugu eta bidea harkaitzen artean paso deseroso bat gaingituz zabaldu zaigu *Sotlloko* sakan ikusgarrian zehar. Aldapak ez dira gogorrak eta horrek paisaiatz goatzeko aukera eskaini digu. Ordeka belartsua igaro eta *Estany de Sotllora* iristean hau inguratu eta *Estany d'Estats* aintziraren ondora heldu gara. Hemendik lehen aldiz ikusi dugu Picaren ekialdeko aurpegi ikaragarria. Mokadu bat jateko geldialditxo. *Pic de Canalbona* aldetik eguzkiaren lehen izpiak *Pic de Sotllora*ren gailur eta magalak argitzen hasi dira eta itzala ez galtzeko martxan jarri gara. *Port de Sotllora* igotzeko harriztan marrazten den xenda piko, luzea eta gogorra da. Ederki gaingitu dugu malda. Lepoan hotz egiten du.

Gandorra jarraituz gailurrera igo daiteke baina bide hau soilik trebatutako mendizaleentzat gomendatzen da, guk berriz, iparraldeko ibar txikitik igotzea erabaki dugu, hauxe baita igoerarik seguruena. Jaitsiera labur baten ondoren elurtegi txiki bat gaingitu eta cahirrek erakutsi diguten bidea jarraituz iparraldeko isurialdean dagoen harriztatik *Pica d'Estatseko* gailurrera heldu gara. *Catalunyako* gailurrik altuena den honetan ordubete eman dugu jan, edan, argazkiak atera eta mendiak identifikatzen. Itzuli aurretik taldekide gehienek *Coll de Riufreeda* jaitsi eta *Montcalmera* igotzea erabaki dute. Beranduago elkartu eta etorritako bidetik aterpera jaitsi gara.

Dutxatu, arropak ikuzi eta eskaileteran eserita nekeari atsedean eman diogu. Gauez, bezperan lez, gelako leihoetik mendiak zeru izartsuan marrazten zuten siluetari begira geratu nahi baina loak lehenago harrapatu nau. Gau on.

5. ETAPA: Refugi de Vall Ferrera - Refugi de Comapedrosa - Arinsal

Luzera: 10,5 km
Desnibela: 1125 m ↑ 1566 m ↓
Denbora: 8 ordu

Azken eguna. *Refugi de Vall Ferrera* atzean laga eta *Pla de Boetera* jaitsi gara. Berehala ikusi ditugu GR-11ren bide-


seinale zurigorriak. Baiako bidea hartu eta basotik gora igotzen hasi gara. Errekastoak eta belardi zabalak zeharkatzen dituen bide ederrak jarraituz *Pla de Baiaura* heldu gara. Freskatzeko tartea hartu dugu *Pic de Gerri*, *Pic de Palomer* eta *Pic d'Ascorbes* mendiak osatzen duten zirku bikainari so geratu garelarik. Berehala iritsi gara *Estany d'Ascorbes*en ondora eta malda txiki bat igo ostean *Refugi Josep M^o Monforten* ondoan itzala bilatzen hasi gara. Aterpea muino baten gainean eraikirik dago eta beheago, *Estany de Baiu* ikusi dugu. Jaitsi eta aintziraren ertzean hamaiketako egin dugu. *Pic de Medacorba*, *Pic de Baiu*ko gailurrek eta *Roca Entrevesadaren* gandorrek inguratzen duten aintzirari zirku-itxura ederra ematen diote.

Berriro mendiaren bakardadea dastatzeko aukera izan dugu, hemen ez dago 3000ko mendirik ezta ere bertaraino autoz gerturatzerik. Zortea dugu gaur ere. Oso gustura gaude baina helmuga oraindik urruti dago. Aintzira ezkerretik inguratu eta hego-ekialderantz igo eta gero leporantz abiatu gara. Korridore piko eta harriztan taldea sakabanatu egin da, bakoitzak ahal izan duen moduan gaingitu ditu azken metroak. Oso neketsua.

Taldekide gehienek *Pic de Baiu* igo eta *Alt de Comapedrosaraino* jarraitu dute, hau baita *Andorrako* mendi garaiena. Beherago dagoen *Estany Negren* berriro elkartu gara. Bazkaldu ostean beherantz egin dugu eta belardian zehar sigi-sagan jaitsi gara GR-11tik aparte geratzen den *Refugi de Comapedrosara*. Hotel itxura duen aterpe bikaina. Honen ondoan dagoen *Estany de les Truitese*ko uretan azken bainua hartu eta *Arinsalera* jaisten hasi gara. Errododendroz eta otsalzarrez betetako bide dotorea segi, basoan murgildu eta aurkitu ditugun azken mugurdiak janez herrira heldu gara, "zibilizazioa". Hotelak, dendak, tabernak, apartamentu bloke erraldoiak, eskiatzeko erremonteak mendiaren magalari hozka eginez. Akabo!

Nola heldu

PALLARS SOBIRÀ



■ Estany de Babortera jaisten

Vall de Cardós

VALL de Cardós ziurrenik Pirinioetan gutxien ezagutzen den inguruenetako bat da. *Catalunyako Pallars Sobirà* eskualdeko iparraldean dago *Vall de Unarre* eta *Vall Ferrera* haranen artean kokaturik.

Mendi garai eta malkartsuez beterik dago eta hauen artean haran estu eta trinkoak txertatzen dira. Mendirik garaiena *Pic de Sotllo* dugu (3073 m) baina inguru hauetan oso ezagunak diren beste mendi batzuk aurkitu ahal izango ditugu: *Pic de Certascan* (2853 m), *Pic de Ventolau* (2849 m), *Mont-Roig* (2864 m), *Pic de Campirme* (2633 m), *Pic de Baborte* (2938 m), *Pic dels Guins de l'Ase* (2960 m) e.a. Hauen magaletan aintzira (estany) mordoska dago, berrogeita hamar inguru. Garrantzitsuena eta ikusgarriena Pirinioetako aintzira natural handiena den *Estany de Certascan* da bere sakonera 90 metrokoa izanik.

Noguera de Lladorre ibaiak harana zeharkatzen du *Vall Ferrera*ko *Noguerarekin* elkartu eta *Llavorsí* herrian urak *Noguera Pallaresa* ibaian isurtzen dituzte. Inguru hauetan ustiaketa hidroelektrikoak garrantzi handia du eta zentralak eraiki dira *Tavascan* eta *Llavorsin* besteak beste.

Biztanle gutxi duten hamaika herrixka aurkitu ahal izango ditugu *Vall de Cardós*eko haran estuetan barreiatuz, garrantzitsuenak *Ribera de Cardós*, *Tavascan* eta *Lladorre* direlarik. *Pallars Sobirà Alta Ribagorzarekin* batera *Catalunyako* eskualderik despopulatuenak dira.

Vall Ferrera


BAIAUko zirkoa eta *Coma d'Estatsen* jaiotza eta *Noguera de Cardós*en amaitzen den haran hau *Pallars Sobirà* eskualdeko ekialderago dagoena da. Viróseko basoan zeuden burdin meategiek garrantzi handia izan zuten garai batean eta hortik datorkio izena haranari. Sutegietan oinarritutako industria garatu zuten X. mendetik aurrera. XIX. mendean *Alinsen* oraindik bi sutegi geratzen ziren eta burdina penintsulako leku askotara eramaten zuten. Industria Iraultzaren etorrerarekin zaharkituz geratu eta itxi egin zituzten.

Haranaren iparraldean, *Frantziarekin* muga eginez, *Catalunyako* mendi garaiena igo dezakegu: *Pica d'Estats* (3143 m). *Andorra* aldean berriz, *Baiauko* zirkoa izotzak garai batean erliebean sortutako higadurak nabarmenak dira eta inguruan estany batzuk aurkitu ahal izango ditugu. *Cardós* eta *Ferrera* haranak lotzeko erabili ohi zuten bidetik igoz glaziar jatorria duen *Baborteko* zirko bikaina bisita dezakegu. Hiru ibilaldi eder harana bere osotasunean ezagutzeko.

Haran estuan zehar herrixka gutxi batzuk ikusiko ditugu, baina aipagarrienak *Alins* eta *Àreu* dira. Azken hau bitan banaturik dago, batetik la *Força d'Àreu* auzo zaharra bere harresiarekin, eta bestetik hegoalderago auzo berri eta nagusia. Haranean murgilduz gero *Pla de la Selva* igaro eta pista amaitzen den lekuan *Pla de Boetera* helduko gara. Oraindik trahumantzia ohiko lana zenean inguru hauek uda garaian ganaduaren bizileku izaten ziren. □

■ Taldea *Pica d'Estatsen* gailurrean





Urratsez urrats

00.00	Cerbi herria (1420 m)
01.55	Planell de Sartari (1950 m)
02.25	Estany de la Gola (2250 m)
03.10	Tres Estanys (2420 m)
04.20	Ventolau lepoa (2758 m)
04.50	Pic de Ventolau (2843 m)
05.15	Ventolau lepoa (2758 m)
07.00	Refugi de la Pleta del Prat (1720 m)
07.50	Quanca (1400 m)
08.35	Noarreko Bordak (1600 m)
10.50	Certascan lepoa (2610 m)
11.40	Tuc de Certascan (2840 m)
12.30	Certascan lepoa (2610 m)
14.00	Refugi de Certascan (2240 m)
16.10	Pla de Boavi (1400 m)
18.40	Sellentés lepoa (2490 m)
19.00	Estany de Baborte (2438 m)
21.15	Ferrerako pista (1740 m)
22.00	Refugi de Vall Ferrera (1940 m)
23.15	Estany Sotllo (2392 m)
23.50	Estany d'Estats (2471 m)
24.50	Sotllo lepoa (2894m)
25.15	Glaziarrea (2750 m)
26.15	Pica d'Estats (3141 m)
26.40	Riufred lepoa (2988 m)
27.10	Montcalm (3077 m)
27.40	Glaziarra (2750 m)
28.00	Sotllo lepoa (2894 m)
30.00	Refugi de Vall Ferrera (1940 m)
30.30	Pla de Boet (1850 m)
32.50	Estany Baiau (2475 m)
33.50	Baiau lepoa (2760 m)
34.30	Alt de Comapedrosa (2942 m)
35.15	Estany Negre (2650 m)
36.30	Refugi de Comapedrosa (2220 m)
38.00	Arinsal (1466 m)

GR-11 jarraituz Portella de Baiauko zirkua bilatuz


Lorena eta Hodei Sellenteseko lepora heldu aurretik

RESUMEN

SON cinco días para recorrer la travesía desde Cerbi hasta Arinsal, atravesando los valles de Cardós y Ferrera, durmiendo en los refugios de Pleta de Prat, Certascán y Vall Ferrera (dos noches) y ascendiendo sucesivamente a las cumbres de Pic de Ventolau (2843), Certascán (2840), Pica d'Estats (3141, techo de Catalunya y máxima altitud de la travesía), Montcalm (3077), Pic de Baiau (2886) y Comapedrosa (2942, techo de Andorra). Han sido un total de 60 km, casi 7000 m de subidas, y 38 horas de caminata con una pesada mochila en la espalda, para 15 montañeros (13 chicos y 2 chicas), en el último verano.

ibilbidearen profila

Vall de Cardós eta Vall Ferrera





ARGAZIAK: MIKEL ARRIZABALAGA

Aterpeak

- 1- Alberg Pirinenc (948 m) – Esterrí d'Àneu. 48 leku (gordeta) C/ Major nº 2 - 25580 Esterrí d'Àneu-Lleida
Tel.: 973 62 62 11 <http://www.altaruta.com>
- 2- El Fornet (1.350 m) – 40 leku (gordeta) Camino de Montgarri s/n - Estación de Bonabé - Lleida
Tel.: 973 62 65 20 / 629 49 13 15
- 3- Casa Sastres (1.160 m) – 45 leku (gordeta) C/ Escoles s/n - 25586 Isil - Lleida
Tel.: 973 62 65 22 / 609 49 13 15
- 4- Mont-Roig "Enric Pujol" (2.290 m) – FEEC. 18 leku (gorde gabea)
- 5- Pleta del Prat (1.740 m) – Lladorreko Udalarena. 50 leku (gordeta) C/ Casal de la Vila - 25577 Tavascan - Lleida
Tel.: 973 62 30 79
<http://www.lapleta@cambrescat.es>
- 6- Certascan (2.240 m) – FEEC. 40 leku (gordeta) C/ La Costa, 10 - 25594 Rialp - Lleida
Tel.: 973 62 32 30 / 973 62 13 89
- 7- Baborte (2.438 m) – UEC. 18 leku (gorde gabea)
- 8- Vall Ferrera (1.940 m) - FEEC. 20 leku (gordeta)
Tel.: 973 62 43 78 / 973 62 07 54
- 9- Baiu - "Josep M^a Montfort" (2.517 m) – FEEC. 14 leku (gorde gabea)
- 10- Comapedrosa (2.220 m) – Govern d'Andorra. 60 leku (gordeta) Comú de la Massana - Principat d'Andorra
Tel.: 00 376 32 79 55 / 00 376 83 50 93

* FEEC: Federació d'Entitats Excursionistes de Catalunya. Tel.: 93 412 07 77
<http://www.feec.es>

* UEC: Unió Excursionista de Catalunya

■ Andorrako lurretan Comapedrosako aterperantz

Bibliografia

- 1- "Pirinioak V". Angulo, M. Elkarlanean argitaletxea, 2000. <http://www.jalgi.com/elkarlanean>
- 2- "Guia Montañera Valle de Cardós". Gel, C. Sua Edizioak, 1994. <http://www.jalgi.com/sua>
- 3- "Guia Montañera Andorra". Figuera, M.; Brosel, A. Sua edizioak, 1998.
- 4- "Rutas y paseos por el Pirineo catalán". Antoni A. Sua Edizioak, 1996.
- 5- "GR 11. Senderos de Gran Recorrido". Prames S.A., 1995.
- 6- "Refugios Pirenaicos". Prames S.A., 1993.
- 7- "Alta excursión en los Pirineos". Veron, G. Ediciones Martínez Rosa S.A., 1985.
- 8- "Haute Randonnée Pyrénéenne". Veron, G. Rando editions, 1998.

Kartografia

- 1- "Carte de Randonnées. Pyrénées carte n° 6. Couserans - Cap d'Arán". 1:50.000. Cartographie Institute Géographique National. Rando éditions, 1990.
- 2- "Carte de Randonnées. Pyrénées carte n° 7. Couserans - Cap d'Arán". 1:50.000. Cartographie Institute Géographique National. Rando éditions, 1990.
- 3- "Carte de Randonnées. Pirineus-Pyrénées 22. Pica d'Estats - Aneto". 1:50.000. Generalitat de Catalunya. Institut Cartogràfic de Catalunya. Rando éditions, 1999.
- 4- "Pica d'Estats. Vall de Cardós - Vall Ferrera". 1:40.000. Editorial Alpina, 1994.

mapa

